

'KALE GORRIA'. Ikertzeko borondaterik ez dagoela dio Askagintzak

Guardia Zibilaren eta droga trafikoaren arteko loturen inguruko lana aurkeztu dute

Narkotrafikoa eta Guardia Zibila lotzen dituen bideoaz gain, Fragari buruzko liburua ere kaleratu du aldizkaria egiten duen argitaletxeak



GARI GARAIALDE
Ezkerretik eskuinera, Txus Congil, Pepe Rei, Xarlo Etxezaharreta eta Alvaro Marcet, atzo, Donostian.

Julen Etxeberria | DONOSTIA

Kale Gorria aldizkariak liburu bat eta bideo bat aurkeztu zituen atzo Donostian. *Fraga, retrato de un fascista* liburuaren eta *Del PP a Intxaurren* bideoaren aurkezpenean, Xarlo Etxezaharreta *Kale Gorria*-ko zuzendaria, Pepe Rei kazetaria, Txus Congil Askagintza erakundeko bozeramailea eta Alvaro Marcet Gipuzkoako Salhaketa erakundeko abokatua izan ziren.

Etxezaharretak azpimarratu zuen lan horien aurkezpenean «Galiziaz» mintzatuko zirela, «baina ez komunikabideetan

agertzen denaz, ikusten ez dugunaz baizik». Jarraian, Gustavo Luca kazetariak idatzitako *Fraga, retrato de un fascista* liburuaren aurkezpena egin zuen.

Bi elkarrizketa

Pepe Rei bideoaren bi berezitasun nagusiak azaldu zituen: espetxean zegoela Laureano Oubiña droga trafikatzailarekin eginiko elkarrizketa, eta Pedro Luis Migueliz isilmandariarekin *Kale Gorria*-ko kazetari batek eginiko beste elkarrizketa bat. Horietan, elkarrizketatuek Guardia Zibilaren eta droga trafikoaren arteko loturak azaldu zituzten.

«Ez dut iskanbilarik nahi. Kazetari gisa ditudan betebeharrak bete nahi ditut, besterik ez», esan zuen Reik. Ildo horretatik, eskatu zuen «orain mezulariaren aurka ez egiteko, eta ustelkeria sustraitik mozteko».

Txus Congilek, aldiz, azpimarratu zuen droga trafikoaren arduradunak ikertzeko «borondate falta izugarria» dagoela, baina bideoan errudunen aurkako frogak daudela aurreneko aldiz.

Alvaro Marcetek, berriz, jakinarazi zuen Askagintzak eta Salhaketak 1988an Irunen desagertu ziren 150 kilo kokainaren inguruko sumarioa irekitzeko eskatu dutela.

EUSKO JAURLARITZA. Askatasunerako adierazpena berretsi egin zuen atzo

Ibarretxek erakundearen arteko adierazpena «aurki» izenpetzea espero du

F.I. | GASTEIZ

Juan Jose Ibarretxe lehendakariak *Bizitzarako, Askatasunerako eta Segurtasunerako eskubideen aldeko Adierazpen Institutuzionala* aurki izenpetzea espero du. Litekeena da bihar bertan egitea izenpetze ekitaldia, Josu Jon Imaz Jaurlaritzako eledunak jakinarazi duenez.

Ibarretxek inbestidurako osoko bilkuran eman zuen adierazpenaren berri, bakearen alde berak hartutako konpromisoa dela esan baitzuen. Adierazpenaren zirriborroa foru aldundiei eta Eudel udalen erakundeiei igorri zien, guztiek bat egin dezaten.

Adierazpena berretsi zuen atzo Eusko Jaurlaritzak, astero-

ko Gobernu Kontseiluan. Bali-teke foru aldundiekin izaten ari diren negoziatioetan zerbait aldatzea —hala nahi du Arabakoak—, baina guztia hitzartua izatea espero du, halaber, aste honetan izenpetzeko.

Segurtasun alorrean erakunde guztiek «bide beretik» jotzeko, adierazpena tresna baliagarria izatea espero du Jaurlaritzak. «Zerbait aldatu behar bada, egiteko prest gaude. Izan ere, garrantzitsuena da guztiok oinarri komun bat izatea segurtasun alorrean», adierazi zuen atzo Josu Jon Imazek.

LAGURREAN



DAVID AGUILAR / EFE
Pablo Mosquera.

Pablo Mosquerak PPko legebiltzarkide kargua utzi du Arabako Aldundiko lanari lotzeko

Pablo Mosquera UAko idazkari nagusiak PPko legebiltzarkide kargua utzi zuen atzo, Arabako Diputazioko Gazteria eta Kirol sailburu lanari lotzeko. Mosquerak azpimarratu zuenez, «foru eta udal hauteskundeak izateko bi urte falta dira, eta Arabaren zerbitzuko lanari lotzeko unea iritsi da. Gainera, Ramon Rabanera Arabako ahaldu nagusiak gure lanean buru-belarri behar gaitu». Mosqueraren lekukoa Enriqueta Benito UAko idazkariorde nagusiak hartuko du.

Reiren auzipetzearen aurkako helegitea aztertuko du Entzutegiak

Pepe Rei kazetariaren auzipetzearen kontrako helegitea aztertuko du Espainiako Entzutegi Nazionalako Laugarren Sekzioak urriaren 26an. Baltasar Garzon epaileak martxoaren amaieran auzipetu zuen Rei, «ETAko kide» izateaz akusatuta, ordura arte laguntza ematea egotzi arren. Rei espetxeratzeko urtarilean agindu zuen Garzonek, eta, hain zuzen, Entzutegi Nazionalako Laugarren Salak aske utzi zuen ekainean, espetxeratzearren kontrako helegitea aztertutakoan.

Puertoko preso batzuk modulu gogorrago batera eramán dituzte

Puerto I kartzelan dauden Joxean Agirre, Fernando Arburua, Jon Gaztelumendi, Josu Ziganda eta Jose Antonio Fernandez 4. modulutik 2.era aldatu dituzte. Modulu horretako bizi-baldintzak gogorragoak direla salatu dute Senideek, are gehiago aldaketa «zigor oinarri gabea» dela. Irailaren 27an leihoetan ikurrinak jartzeagatik zigortu dituzte.

ESPAINIARATZEAK

Hainbat ekitaldi egingo dira Bizkaian, Frantziak iragarritako hamazazpi kanporaketan aurka

Erredakzioa | BILBO

Bizkaiko Amnistiaren Aldeko Batzordeek hainbat ekitaldi burutuko dituzte asteon Frantziak hamazazpi euskal hiritar kanporatzeko emandako aginduen aurka. Agindu hori betetzeko epea datorren zapatuan amaitzen da. Herenegun AA-Bek elkarretaratzea egin zuten Durangon, Sabeco supermerkatuaren aurrean. Horrez gain, gaurko mobilizazio eguna deitu dute herrialdean, eta zapatuan manifestazioa deitu dute Bilbon, 18:00etatik aurrera. Manifestazio hau Arriaga antzokiaren aurrean hasiko da eta Frantziako kontsuletxean amaitu.

Batasunak bat egin zuen atzo AABen mobilizazioekin. Alderdi horren berbetan, «Frantziako Estatuaren jazarpeneko jautziak ez dute batere laguntzen gure herriak bizi duen gatazka gainditzeko». Batasunaren irudiko, Frantziako Gobernuak urratu egiten du «euskal hiritarrek Euskal Herrian bizitzeko duten eskubidea».

DIRU BEREIZIAK

Barne Ministerioko interbentoreak dio ez zekiela gainsoldatak ordaintzen zirenik

Agentziak | MADRID

1987 eta 1997 bitartean Espainiako Barne Ministerioko kontu-hartzaile izandako Fernando Martinez Genique agertu zen atzoko saioan diru berezien epaiketean, eta ukatu egin zuen Ministerioko goi kargudunei edo funtzionarioei gainsoldatak ordaintzen zitzaizkiela bazekiela. Esan zuenez, «prentsaren bitartez» izan zuen horren berri.

Atzo bost lekuko ziren agertzekoak epaimahaiaren aurrean. Hala ere, horietako bi ez ziren azaldu eta berriro deituko dituzte. Lekukotza eman zutenetako bat Carmen Aurora Lobo Diez administrari laguntzailea izan zen. Espainiako Segurtasunerako Estatu Idazkaritzan lan egindako emakume horrek esan zuenez, 40.000 eta 50.000 pezeta bitarteko gainsoldata jaso zuen —dirutan, gutunazal batean—, bulego horretan lanean hasi zenetik, 1982-83tik, Juan Alberto Belloch Barne Ministerioan sartu zen arte.